

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak industria berritzeko politika aurkeztuko du Bruselan

Foru Erkidegoan, besteak beste enpresez, teknologia-zentroez eta unibertsitatez osatutako 400 eragile ekonomiko baino gehiago biltzen dituzten zazpi kluster ari dira lanean

Miércoles, 10 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak 2006an hasi zuen klusterren politika aurkeztu du Bruselan. Une honetan, zazpi kluster ari dira lanean Erkidegoan, sektore hauetan: informazioaren teknologia berriak (IKT), nekazaritzako elikagaiak, automobilgintza, logistika eta garraioa, ingurumena, ibilgailu elektrikoa eta eguzki-energia. Horrela, ia 400 eragile ekonomiko biltzen dituzte, haien artean enpresak, teknologia-zentroak eta unibertsitateak daudela.



Volkswagen markako ibilgailua Nafarroako Automobilgintzako Teknologia Zentroaren laborategi batean.

Kluster terminoa informatikatik dator. Berez, ordenagailu-konglomeratua da, eragiketetan potentzia eta eraginkortasun handiagoa lortzeko. Eskualde bateko industrian aplikatuta, kasu honetan bezala, teknologia-, kudeaketa- eta ezagutza-baliabide multzoa da klusterra, berrikuntza sustatzeko eta sektore estrategiko baten lehiakortasunaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren adierazleak hobetzeko.

Klusterrak eta antzekoak diren beste irudi batzuk (lehiakortasun zentroak, lehiakortasun ardatzak eta teknoardatzak) enpresek eta teknologia-zentroek eskualdeko bateko lehentasunezko sektoreei buruz dituzten ikuspegiak dira, eta berrikuntza-sistemaren eskualdeko gaitasuna handitzen lagun dezakete, ekosistema egokia eskaintzen dutelako enpresen eta ezagutza-zentroen arteko lankidetzarako, besteak beste ikerketa-ekimenetarako eta eskualdeko politikekin bat datozen berrikuntza-ekimenetarako.

Nafarroako klusterrak Rafael Mugerza Erasok, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko Berrikuntza eta Informazioaren Sozietateko Zerbitzuko zuzendariak, aurkeztu zituen, Europako eskualdeetan *espezializazio adimenduna* garatzen ari diren klusterrei eta enpresa-elkarteei buruz egindako jardunaldi batean. Guztira, Europar Batasuneko 45 ordezkariak parte hartu zuten. Jardunaldia [Making Knowledge Work](#) proiektuaren barruan egin zen.

Proiektu ho Nafarroako klusterrak Rafael Mugerza Erasok, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko Berrikuntza eta Informazioaren Sozietateko Zerbitzuko zuzendariak, aurkeztu zituen, Europako eskualdeetan espezializazio adimenduna garatzen ari diren klusterrei eta enpresa-elkarteei buruz egindako jardunaldi batean. Guztira, Europar Batasuneko 45 ordezkariak parte hartu zuten. Jardunaldia Making Knowledge Work proiektuaren barruan egin zen. Proiektu hori, eskualdeen garapenerako Europako funtsekin (FEDER) finantzatuta dago, Nafarroako Gobernuak kide den Interreg IVC lurralde-lankidetzako programaren bidez.

Nafarroako Gobernuak azaldu zuen klusterrak bultzatzeko politikak hertsiki egon daitezkeela eskualdeko *espezializazio adimenduna* lortzeko esfortzuekin. MODERNA plana Europan izandako *espezializazio adimenduneko* lehen ekimenetako bat da, eta horri esker, Nafarroako ekonomia eta produkzio-eredua berriz orientatzeko lehentasunak eta ekintza-plana ezarri dira. Hain zuzen, hiru ardatz ekonomiko handien (osasunaren ekonomia, ekonomia berdea eta talentuaren ekonomia) inguruan dagoen ezaqutzaren ekonomia baterantz jo du, eta 12 kluster sustatu edo indartu ditu.